



PAKISTANGO HUSHEKO BAILARAKO
EMAKUMEAK
BIZITZAKO ISTORIOAK





Argitalpen hau “Husheko Bailarako Emakumeen Autonomiaren eta Jabekuntzaren Sustapena” proiektuaren barruan dago kokatuta, eta, bestek beste, liburu hau eman du argitara. Argitalpena lau hizkuntzatarara itzuli da: urdua, ingelesa, euskara eta gaztelania, eta Baltistan Fundazioako web orrialdean ere aurki daiteke.

Argitalpenaren finantziazioa:



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Argitaratzailea:

BALTISTAN FUNDAZIOA

Posta-Kutxa 46

20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

www.baltistan.eu



Autorea: Nazneen Zehra

Koordinazioa: Grupo de Mujeres de Baltistan Fundazioa

Discinua eta Maketazioa: Eunate Saiz

Euskarako itzulpena: Julen Rodriguez y Ioseba Landa

Gaztelaniako itzulpena: Eunate Saiz

Inprimaketa: GERTU - Oñati (Gipuzkoa)

Lege-gordailua: SS 1057-2014

Agiri hau Creative Commons lizentziapean dago. Badago lan hau askatasunez kopia-zerik, banatzerik eta jendaurrean jakinarazterik, betiere bere autoretza aitortzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Ez dago liburu honetan oinarritutako lana sortzerik, aldatzerik edo eraldatzerik.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>





NAZNEEN ZEHRA

PAKISTANGO HUSHEKO BAILARAKO
EMAKUMEAK
BIZITZAKO ISTORIOAK







“Hamazazpi urte nituen ezkondu nintzenean. Erreka hurbilena etxetik bi ordura zegoen, oinez. Egunero, ibilbide hori egin behar nuen familiarentzako ura ekartzeko. Neguko goiz hotz batean, auzoko beste neska batzuekin joan nintzen errekarara ur bila.

Garai hartan, ura garraiatzeko generabilen murkoa oso ondasun preziatua zen, familiok bana baino ez geneukan-eta. Errekatik itzultzean, murkoa urez gainezka, izotzean egin nuen irrist, eta lurrera erori nintzen. Zoritxarrez, murkoa txikitu zen, eta uretan blai nengoen. Etsita, negarrez hasi nintzen, baina ez hotzagatik, amaginarrebari gertatutakoa azaltzean sortuko ziren ondorioengatik baizik. Izan ere, emakume zorrotz bezain aldartetsua zen.

Lasaitu beharrean, lagunak oihuka hasi zitzaizkidan: *Gajoa halakoa! Amaginarrebak errieta egingo dizu murkoa apurtzeagatik, eta zure senarrari esango dio galera handi horrengatik dibortziatzeko.* Hori entzutean, are gehiago larritu nintzen. Etxera heldu bezain laster, amaginarrebari azaldu nion gertatutakoa. Haserre bizian zegoen nirekin, eta, uste bezala, errieta egin zidan, aitaren aurrean iraintzen ninduen bitartean. Zigor moduan, ez zidan zenbait astetan hitz egin”.

- Hirurogeita hamar urteko emakume anonimoa -





Aurkibidea

Hitzaurrea	11
Sarrera.....	17
I. Hezkuntza sustatzen	25
II. Izpi itxaropentsua	31
III. Arrakasta istorioa	37
IV. Aldaketa bidean	43
V. Non gogoia, han zangoa	49
VI. Izar argitsua	55
VII. Bataren gaitza, bestearen ona	59
VIII. Emakume ausarta	67





HITZAURREA

Liburu hau iparraldeko zein hegoaldeko emakumeek azken hamarkadan garatutako ahaleginen ondorioz sortu da aitorten moduan, eta Pakistango Husheko bailarako emakumeek bizitza duina edukitzea baino ez dauka helburu.

Husheko bailarako etxe txiki-txikiak oso hauskorak dira. Bertako biztanleek garian, autokontsumorako barazkien ekoizpen txikietan, abrikotetan eta beste fruta batzuetan oinarritutako biziraupen- nekazaritza dute bizibide. Gainera, nekazaritzako ekoizpena ez da nahikoa oinarritzko premia guztiei aurre egiteko.

Emakumeak dira biziraupenerako ekonomia horretako pisu handiena jasaten dutenak. Nekazaritzaz zein abeltzaintzaz -familia aberatsetan- arduratzen dira, eta adinekoak nahiz umeak ere zaintzen dituzte. Gizonek, ordea, garraiolari edo mendiko gidari lan egiten dute udan, nazioarteko mendigoizaleen eta ibiltarien espedizioak eskualdera iristen direnean.

Hain zuzen ere, talde horiek bailarako jendearen errealitate krudela ezagutu zutenean lotune solidarioa ezarri zuten, Baltistan Fundazioa (BF) sortu zen. 2001. urtean eratu zenetik, erakundeak etengabe lan egin du nazioarteko lankidetzarako proiektuen bidez, bertako biztanleek behar besteko gaitasunak eta azpiegiturak izan ditzaten, berdintasunezko garapen-eredu ekonomiko jasagarria sustatzeko eta kudeatzeko orduan. Aldi berean, Pakistanen bertan, Husheko bailarako biztanleek bakarrik osatutako tokian tokiko Felix Iñurrategi Foundation Baltistan Machulu (FIFBM) ere eratu



zen GKE moduan, eta behar besteko azpiegitura ere badauka, erkidegoaren eskaerak zein premiak egia bihurtzeko.

Bailarako egoera oso latza da emakumeentzat, euren autonomia eta hazkuntza pertsonalean aurrera egiten uzten ez dieten oztopoz beteta dagoelako. Goizeko lauretan jaikitzen dira, eta etengabe lan egiten dute gaueko hamarrak edo hamaikak arte. Honako hauexek dira euren zereginak: familia zaintzea (hau da, senarra, seme-alabak, adinekoak...), etxeko lanak egitea (janaria prestatzeko egurraren bila joatea, ur bila joatea, ibaian garbitzea, elikagaiak hornitzea...), baratzeko lanak garatzea (orduak eta orduak ematen dituzte ereiten eta biltzen)... Azken batean, euren familia handien ugalketaz eta ekoizpenaz arduratzen direnez, ez dute eurentzako astirik, eta egoera hori euren osasun zein ongizatearen kalterako da benetan.

2004. urteaz geroztik, BFK emakumeen aldeko jarduerak bultzatzen ditu, euren erkidegoko garapenean parte hartu dezaten. 2005ean, BFKo emakume bat bailarara joan zen, generoaren ikuspegitik egoeraren diagnostikoa egiteko asmoz. Bertan, argi eta garbi ikusi zuen emakumeak garapenerako edozein jardueratatik kanpo zeudela. 2006. urtetik aurrera, Emakumeen Batzordeak sortu ziren bailarako erkidegoetan, eta, 2007an, proiektu berezia jarri zen abian emakumeekin. Emakumeek eurek eskatuta, Machuloko Emakumeentzako Prestakuntza Zentroa sortu zen.

Ondoren, BFKo Genero Taldea sortu beharra zegoela konturatu ziren, bailarako emakumeekin batera euren eskaeren garapena sustatzeko eta behar den moduko jarraipena egiteko. Horrela, bada, 2008. urtetik gaur arte, talde horren eta bailarako emakumeen lanak aurrera egin du, sendotu egin da eta liburu hau aurkeztu ahal izan dute gaur egun.



HITZAURREA

Urteotan, baterako jarduera asko garatu dira, eta, iparraldean nahiz hegoaldean, Emakumeen Batzordeen bitartez erkidego guztien ordezkariak diren emakumeen lan-taldea sortu da apurka-apurka, hasiera-hasieratik emakumeen ikuspegiak eta premiak kontuan hartzen dituen giza garapenerako eredu jasangarriaren lorpenean aurrera egin ahal izateko. Talde hori eratu baino lehen, ordea, bailarako erkidegoen mobilizazio sozialerako prozesua jarri da abian. Bertan, hain zuzen ere, ageri-agerikoa izan da emakumeek ere garapen horretan parte hartu nahi dutela, nahiz eta euren lan-zama ikaragarria den eta erkidegoan zein familian bertan erantzukizun handiak dituzten.

Erkidego horietako gizonak hasi dira ulertzen garapen-eredu berri horretan aurrera egiteko emakumeek ere bertan parte hartu behar dutela. Emakume liderrak sortzen hasi dira, eta emakumeei diru-sarrerak ematen dizkieten nekazaritza-elkarteak eratu dira. Urteotan, gainera, zenbait teknikatan ere prestatu dira honako leku hauetako prestakuntza-zentroetan: Machulo, Saling, Salingone, Marzegone, Thalís, Khande, Khane eta Hushe. Emakumeak erkidegoko jendaurreko ekitaldietan hasi dira hitz egiten, eta beste erkidego batzuetan ere sortu dira zentroak. Elkargune horietan, euren ametsak, ilusioak zein premiak partekatzeko aukera dute, eta eurentzat interesgarriak diren jarduerak antolatzen dituzte; esate baterako, nekazaritzari, higienari, nutrizioari, eskulanei... buruzko ikastaroak.

Urteotan, garapenerako jarduerak egin dira bailaran, emakumeak antolatu daitezten, emakume moduan dituzten eskubideen inguruan kontzientziatu daitezten eta eskubide horiek erabiltzen hasi daitezten. Horrez gain, sentsibilizaziorako jarduerak ere garatu dira iparraldean, hitzaldien, erakusketen eta zenbait emakume-talderekin nahiz herritarrekin egindako mendiko txango solidarioen bitartez. Aurrerapauso horiek txikiak direla dirudien arren, kultura baltia



hain isolatua eta tradizionala dela kontuan hartuta, oso aldaketa esanguratsuak dira. Hori dela eta, emakumeen integrazioarako estrategiak abian jartzen jarraitu beharra dago, euren erkidegoan beste era bateko etorkizun itxaropentsuagoa izan dezaten eta emakumeak eurak bilakaera horretako protagonistak eta sustatzaileak izan daitezten.

Bizkaiko Foru Aldundiako (BFA) Bailarako Emakumeen Prestakuntza Zentroak eratzeko finantzatutako proiektuaren esparruan, omenaldia eskaini nahi zieten eskubidedun subjektu moduan aurrera egiten lagundu dieten emakume guztiei. Hori dela eta, liburu hau aurkeztu dugu. Liburu hau emakume askoren lankidetzaren eta ahaleginaren emaitza izan da, baina, batez ere, Nazneen Zehra autoreari eman nahi dizkiogu eskerrak, bertara bidaiatu zuelako erkidego horietako emakumeen bizitzako historiak eta lekukotasunak biltzeko.

Bizitzako historia horiek eremu ezkutuotako emakumeek gainditu behar dituzten egoeren, aurrerapausoen eta atzerapausoen erakusgarri dira. Beraz, eskualdeko garapenaren aldeko edozein ekintza islatu eta justifikatu egiten dute.

Liburua lau hizkuntzatara itzuli da: urdua, euskara, gaztelania eta ingelesa. Hartara, ahalik eta jende gehienarengana heldu ahal izango da mezua. Gainera, aipatu egin beharra dago emakume balti gehienak -lautik hiru- analfabetoak direla. Beraz, ahozko hizkuntza baltia baino ez dakite. Hori dela eta, nabarmendu ere egin nahi dugu autoreak eta itzultzaileek ahalegin handia egin dutela, euren testuen bidez emakume horiek guztiak agerian jartzeko eta hitza emateko. Beharbada, euren mezua oso-osorik igortzea izan da zailena, euren egoera ahalik eta ondoen ulertu dadin. Edonola ere, emakumeon mezuen muina ez galtzen saiatu dira.



HITZAURREA

Gehiago luzatu gabe, eskerrik beroena eman nahi diegu tokiko FIFBM erakundeari, bailarako emakume protagonista eta borrokalari guztiei, liburu honetan euren bizimoduko egunez egunekoa islatu duen marrazkilariari, testuak itzuli eta zuzendu dituztenei. Oraingo honetan, ez ditugu liburu hau egia bihurtzen bete-betean lagundu diguten guztien izenak aipatuko, ahalegina eskerga izan delako eta jakin badakigulako norbait ahaztu genukeela. Dena dela, esker berezia eman nahi diegu honako hauexei: Nazneen Zehra autorea, erronka honi aurre egin dion emakume ausarta izateagatik; FIFBMko Generoko Kaniz Fatima koordinatzailea, hasieratik gaur arte bailarako emakumeen jarduera guztietan etengabe lan egiteagatik eta bertako liderra izateagatik; FIFBMko lan-taldea eta, batez ere, Shamseir Ali koordinatzaile nagusia, etengabe laguntzeagatik.

Besterik gabe, XXI. mende honetan munduko leku ezkutu horietako emakumeek oraindik ere bizi duten errealitate latzaren adierazgarri diren kontakizunez gozatuko duzuelakoan gaude.

Sarai Martin
Emakumeen Taldeko koordinatzailea
Baltistan Fundazioa





SARRERA

Garapenaz hitz egitea ureztaketa-ubidez hitz egitea bezala da. Zenbat eta urrunago egon, orduan eta ur gutxiago jasotzen du. Era berean, faktore askok ere badute eraginik garapenaren testuinguruan; esate baterako, adina, gizarte-maila, kasta, erlijioa eta, garrantzitsuenetakoa, generoa.

Husheko bailarako gizartea antzinako zibilizazioen moduan dago egituratuta. Beraz, bizitza publikoan nahiz pribatuan, patriarkatua da nagusi. Hori dela eta, Husheko emakumeek nekazaritzako eta etxeko lanak baino ez dituzte egiten, eta emetasuna etxeko pribatutasunean baino ez da azaltzen. Izan ere, emakumeak baino ez dira zeregin horietaz arduratzen, familia elikatzen dute eta, azken batean, euren ardurapean daude guztiak.

Oso ohikoa da emakumeek ondo ulertutako askatasunik ez edukitzea, hau da, erantzukizun osoa gizonena da, ia-ia maila guztietako erabakiak hartzen dituzte-eta. Emakumeek haien erabakiak bete besterik ez dute, beraz. Era berean, gizonek ere ezkontzen gaineko ahala dute, eta, hitzartuak direnez, emakumeek ez dute senarrik aukeratzetik. Senar-emazteen maitasuna higuina sorrarazten duen kontzeptua da. Horren ondorioz, ez da bikotekideen adostasunik bilatzen, eta, ezkondu ostean, emakume askok senarren gurarici men egin behar diete. Gurasoen maitasunean ere mailak ezartzen direnez, semeak maitatuenak dira alaben kaltetan.

Erabakitzeko askatasuna omen da animalietatik bereizten gaituena, baina Karakorumekeo mendikateko goiko bailaretako



biztanleen kasuan, ordea, emakumeek eskubide hori ere ez dute. Hain sustraituta dauden tradizioek bailarotako dinamika sozialak aldatzeko edozein zantzu uxatzen dute.

Emakume gehienentzat, ostera, ohitura horiek patu aldaezina direnez, baliteke euren bizitza osoan zalantzan ere ez jartzea. Dena dela, hezkuntzaren hobekuntzaren bidez zenbait emakume joera horiek eteten ahalegintzen ari direnez, idatzi gabeko arau horiek gero eta indar gutxiago dute urteen joan-etorrian. Beraz, ageri-agerikoa da lehen azaldu duguna, emakumeek gizonen gurariei men egin behar dietela, alegia. Hori horrela izanda ere, badago salbuespenik, eta euretako batzuk liburu honetan bertan agertzen dira.

Husheko bailarako emakumeek lotune estu-estua dute nekazaritzarekin, baratzezaintzarekin eta ureztaketarekin. Hona hemen edozein egunetan nekazaritzan garatu behar dituzten lanak: lurra palaz goldatzea, simaurra biltzea, belarrak kentzea, ereitea eta, egunaren amaieran, egunean zehar bildutakoa biltegitratzea. Oro har, soloak ureztatzea eta baratzezaintzako lanak egitea ere bada emakumeen ardura (fruta biltzea, lehortzea, biltegitratzea eta intxaurrak haustea). Bestetik, emakumeek ganadua ere zaindu behar dute. Hala ere, oro har, gizonak dira aitorpena jaso eta azken produktua merkatuan saltzen dutenak. Hain zuzen ere, merkaturaketa eta negozioak gizonen ardurapean daudenez, emakumeek ez dute produktuen gaineko jabetzarik.

Era berean, osasun-sistematik eta ubiderik ez dagoenez, are handiagoa da bailaran nagusi den txirotasunaren indizea. Ura oinarrizko bizi-premia da, eta, berriro ere, emakumeen ardura da familiak edateko uraren bila joatea. Oro har, ibilbide luzeak egin behar dituzte oinez ura lortzeko. Neguan hotz handi-handia egiten



duenez, oso-oso zaila da zeregin hori garatzea, baina BF eta FIFBM arazo hori murrizten laguntzen ari dira.

Husheko bailarako neguak gorriak dira, eta egurra da etxeak berotzeko daukaten erregai eskuragarri bakarra. Hain zuzen ere, etxeko lanak emakumeek egin behar dituztenez, emakumeak eurak ere izango dira egur bila doazenak (hain funtsezkoa den baliabidea lortzen dutenak). Emakumeek eta neskatoek zenbait milia egin behar dituzte oinez basoetan egurra bilatzeko, eta, ondoren, etxera itzuli behar dira zama hori guztia bizkarrean daramatela. Etxea berotzeko, mendiko herri horietako emakume batzuk goizaldean jaikitzen dira, egunero-egunero bizpahiru orduz ibili behar dira bidezidor maldatsuetan zehar eta, geroago, aldapan behera egin behar dute egur-pila pisutsuak bizkarrean daramatzatela. Hau da, euren eguna egunsentia baino lehen hasiko da, eta, gehienetan, ilundu duenean amaituko da.

Husheko bailaran bederatzi herri badaude ere, batean baino ez dago osasun-zentroa, Machulun, hain zuzen ere. Beste bitan, Kandayen eta Hushen, ordea, anbulatorio klinikoak daude. Agerikoa denez, baliabide horiek oso urriak dira, eta ez dituzte biztanleen osasun-premiak behar bezala betetzen. Honako hauexek dira gaixotasun ohikoenak: bularreko infekzioa, urdaileko patologia, hotzeriak, larruazaleko infekzioak eta beherakoa.

Ama eta umeentzako atentzioari dagokionez, ez dute behar bezala prestatutako langilerik, hau da, erditzeko orduan laguntzen dien emagirik. Hori dela eta, emakumeak etxean erditzen dira, eta metodo tradizionalen bidezko atentzioa baino ez dute bermatuta. Beraz, ulertzeko modukoa da erditzean sortutako edozein arazo amarentzako nahiz jaioberriarentzako arrisku handi bihurtzea berehala. Haurdunaldian ere, emakumeek ez dute dieta egokia



egiten, eta, gainera, lan astunak egiten jarraitu behar dute beti. Euren eguneroko zereginak (baratzeko lanak, ganaduaren zainketa eta etxeko gainerako erantzukizunak) bere horretan diraute haurdunaldiaren amaierara arte, eta, egunaren amaieran, ia-ia astirik ere ez dute haurdunaldia nola doan eta umea nola dagoen pentsatzeko. Azpiegiturarik ez dagoenez, arazo handia da emakumeontzat, errepide gutxi egotean oso zaila delako atentzio ginekologikoa jasotzea. Are gehiago, Khapuluko barrutiko Ospitale Nagusian ere ezinbesteko osasun-ekiporik ez dutenez, bailarako umeen hilkortasun-indizea oso-oso handia da.

Esaera zahar batek dioenez, pertsonen egoera sozial, politiko eta ekonomikoa hobetzeko ikuspegia eta motibazioa eskaintzen ditu hezkuntzak. Edonola ere, adinekoen belaunaldien iritzia bestelakoa da erabat, hezkuntzan denbora eta dirua galtzen direla uste dute-eta. Euren aburuz, familiari laguntzeko modu bakarra lan egitea denez, zenbat eta lehenago hasi, hobeto. Zorionez, gaur egun, iritzi hori aldatzen ari da, eta gero eta gutxiago dira antzinako ikuspegi horri eusten diotenak. Biztanle gehienak, emakumeak nahiz gizonak, hezkuntza etorkizuneko belaunaldientzako aukera onena dela konturatzen hasi dira. Dena dela, oraindik ere, errezelo handiz hartzen dute neskaten hezkuntza.

Oro har, gaur egun alfabetizazioa %21ekoa da bailaran, oraindik ere emakumeentzako ratioa 1:2koa den arren. Horren ondorioz, emakumeak ez omen dira hain erabilgarriak erabakiak hartzeko orduan, eta, zuzen-zuzenean, hitzik gabeko subjektu bihurtzen direnez, funtsezko edozein eskubide ukatzen diete. Esan gabe doa segregazioa eskoletan bertan hasten dela, gaur egun ere neskak baino mutil gehiago daudelako matrikulatuta.



Husheko bailara eta antzeko beste eskualde batzuk erronka handia dira bertako biztanleentzat, hezkuntza-aukera handirik ez dutelako eta, are gehiago, mugitzeko zailtasun handiak dituztelako, emakumeek, batez ere. Neskaila gehienek amari laguntzen diote etxeko lanak egiten, eta asko eta asko nerabezeroan ezkontzen dituzte. Ezkontza goiztiarrak eskualdeko ohitura dira. Patriarkatuko egiturek eta txirotasunak neskailentzako hezkuntza-aukerak mugatzen dituzte. Txirotasun-maila handi-handia denez, erkidegoak ezin ditu hezkuntza-tasak ordaindu. Hori dela eta, mutilen hezkuntzari ematen zaio lehentasuna, tradizioaren arabera gizonak direlako familia mantentzen dutenak. Nesken hezkuntza, ordea, ez da lehentasunezkoa zereginen banaketa tradizionalaren ondorioz, neskailak etxean nahiz nekazaritzan geratuko direlako lanean. Horrez gain, familia askok ez diete neskaileri eskolara joaten uzten, arrazoi kulturalengatik, irisgarritasunagatik edo ulerkuntzagatik. Hori dela eta, oso egoera zaurgarrian daude hezkuntzaren arloan. Euren analfabetismoaren ondorioz, ez dute dirurik irabazterik, ez dute euren bizimodua hobetzerik eta ez dute eguneroko gaixotasunei edo beste gai interesgarri batzuei buruzko oinarritzko informaziorik eskuratzerik.

“Lehen, emakumeak bigarren mailako gizakiak zirela uste zuten jendeak. Ezkontzean, eskolara biburtzen ziren zuzenean. Nolanahi ere, azken aspaldion, seme-alabek zenbat urte dituzten galdetzen dietenean, artzaintzarako adin nabikoa dutela erantzun beharrean, gaur egun eskolara joateko adina dutela erantzuten dute barro-barro”, adierazi du mutil gazte batek.

Gaur egun, hainbaten eta hainbaten bizitzan, ohiturak eta tradizioak dira nagusi. Gazte-gaztetatik, aitek alaben bizitzako atal gehienei buruzko erabakiak hartzen dituzte, eta, ezkonduetakoan, ahal hori euren senarren edota familia politikoen esku egongo da.



Hain zuzen ere, familiako gizonek erabakiko dute nolako hezkuntza jasoko duten neskatilek, norekin ezkondu behar diren eta zenbat seme-alaba eduki behar dituzten.

Husheko bailarako gizon baten esanetan, “*edozein erabaki hartzeko orduan, zergatik galdetu behar diot emazteari analfabetoa bada. Gainera, nola emango dit aholkuren bat inoiz herritik irten ez bada. Zer erein eta zer solotan baino ezin diot galdetu, ez delako beste erabakirik hartzeko gai, inolaz ere*”.

Gizarte-mailan, euren oinordetza-eskubideak ez eskatzeko konbentzitzen dituzte emakumeak. Alde horretatik, presioa larregizkoa denez eta guraso-harremanak arriskuan jarri nahi ez dituztenez, ez dute euren herentziaren zatia eskatzen. Nahiz eta erlijioan eta konstituzioan jabetzarako eskubidea bermatuta dutela onartu, oro har ez dute eskubide hori erabiltzen gizartean oso txarto ikusita dagoelako.

Edonola ere, zeremonia zein ekitaldi kultural eta erlijiosoetan parte hartzen dute bete-betean, herri batetik bestera gizarteratzeko baimena desberdina den arren. Oro har, ez dira inoiz topaketa publikoetan agertzen, eta, halaxe eginez gero, bigarren planoan, ia-ia ezkutuan egongo dira beti.

Emakumeek jaio direnetik hil arte jasaten dute bereizkeria hori. Euren tradizioen, kulturaren eta erlijioaren patuek bete-betean sustatzen dute emakumeen betebeharra gizonen zerbitzatzea eta men egitea dela. Horregatik, emakumeen artean oso arrunta da isiltasun-botoari eustea eta bizitza osoan bereizkeriaren trauma jasatea. Gizonek ez diete honako honexetan pentsatzen ere uzten: nor diren, euren bizitzarekin zer egin nahi duten... Hartara,



SARRERA

emakumeen azken pentsamendua ere kontrolatzen dute. Beraz, Husheko bailarako emakumeen pairamena betebeharra da ia-ia.

Emakume ezkongabeek badakite amari lagundu behar diotela ura biltzen, neba-arrebak zaintzen eta egurra batzen. Bestetik, ezkondata badaude, etxeko eta soloko lanak ere egin beharko dituzte. Izan ere, badakite zeregin horiek euren ardura bakarra direla. Beraz, bailarako emakumeren bati zorientasuna zer den azaltzeko eskatuz gero, honako hauxe erantzuten du: *“niretzat, seme-alaben alboan esertzea eta urdaila beteta edukitzea da zorientasuna”*.

Lehen, emakumeen hezkuntza pentsaezina zen. Gaur egun, ordea, aldaketa bidean dago eskualdea, eta eraldaketa hori Roqiyari, Kulsoomi eta beste emakume adoretsu batzuei esker jarri ahal izan da abian. Oso gizarte kontserbadorearen kritikak ugariak badira ere eta gizarte eraldaketa horren aurka badago ere, emakumeek aldaketa zein itxaropena ekarri dituzte bailarara, emakume guztiek euren bizitzari baldintza hobetan aurre egin diezaioten.

Nazneen Zehra
Liburu honen autorea





I.

Hezkuntza sustatzen

Roqia, hogeita zazpi urteko emakumea, Hushe Haranekoa da. Nekazari famili baten ondorengoa da. Hiru anai eta bi arreba dituelarik, gazte-gaztetatik mendien inguruan bizi izan da. Bere herrian hasi zuen oinarrizko hezkuntza. Aitak bigarren hezkuntzan matrikulatu zuela jakin zuenean sentitu zuen poza ez zaio sekula ahaztuko. Haurtzaroko bere lagunentzako antzera, irakurtzea maite du. Bigarren hezkuntza amaitzean, batxilergoa egiteko Skarduko Ikastetxean izan ziren onartuak. Skardu bere herritik errepide normal batean lau ordutara egon arren, egunero joan eta itzultzeko urrunegi dago. Hushe Harana bezalako eskualdetan hezkuntza aukerak eskasak dira oro har eta bertako biztanleek euren helburuak erdiesteko hamaika erronka dituzte aurrez-aurre. Emakumeek mugikortasunerako pairatzen duten mugak ere kontuan hartu behar dira. Horregatik, urrun ikasteak Roquiarentzako errealitatea baino ametsa suposatzen zuen.

Bere ahizpak ez bezala, irakurketagatik izugarritzko grina sentitzen zuen eta goi mailako ikasketak lortzea ezinbesteko behartzat jotzen zuen. Aitak bere pasioa bultzatzen zuen, aldi berean, bere seme-alabek hezkuntza egokia edukitzea nahi zuen eta. Hezkuntza faltak sorrarazten zituen oztupoak



onartezintzat hartzen zituen eta zailtasun guztietatik aldendu nahi zuen. Nahiz eta bere alabaren desioa bultzatzea lan erraza ez izan, familiarterko batzuei esker Skarduko Ikastetxean matrikulatzeko modua lortu zuen.

“Azkenean, Skarduko Ikastetxean onartu ninduten eta nire osabaren etxera joan nintzen. Eskolako giroa nik ezagutzen nuenaren oso ezberdina zen. Neskakilak askoz berritsuagoak ziren; edozein gairi buruz gehiago zekiten eta klaseko eztabaidetan modu gogotsuagoan parte hartzen zuten. Errealitate honetatik at, burua bakartasun eta beldurrez bete zitzaidan. Nire klaseko beste nesken oso ezberdina nintzelako ideia butsa denbora luzez izan nuen nire baitan. Horrenbesteko presioa sentitzen nuen, non kurtso amaiera arte nire presentzia ez nabaritzeko gelaren atzeko aldean esertzea nabiarago izan nuen. Une ugartan ez nuen erantzuten irakasleak azaldutako galderen erantzunak jakinda ere, buts egitearen beldur eta beste guztiak nitaiz barre egin ez zezaten. Denbora askoz izan nuen sentipen honek, klasean parte hartzea zaildu egin zidan.

Frustrazioa eta herrimina izan nituen bidelagun banaezin gisa. Nire arazo guztiak anaiari kontatzen nizekionean eta denbora asko ez nuela iraungo bertan aitortzen nionean negarrari ematen nion. Etxera itzuli nahi nuen”.

Bere anaia oso atsegina eta ulerkorra zen berekin. Beti etxeko arazo ekonomikoak ezkutatzen ahalegintzen zen, ez larritzeko eta bere helburuetatik ez oharkabetzeko; jada errealitate bilakatutako bere ametsengatik borroka egiten jarraitzeko konbentzitzen saiatzen zen bitartean. Beste alde batetik, ordea, noizbehinka aitak alabarengan egindako inbertsio ikaragarria gogorarazi behar zuen. Alegia, hainbeste esfortzu egin ondoren behin hain urrun iritsita eta ikasketak bertan behera uzten bazituen, aita iruzurtua sentituko litzatekeela.



“*Bere hitzak, hatsak bezulakoak ziren niretzat, nire arima mugiarazten eta beharrezkoa nuen adorea ematen zidaten. Nire inugana oroitzen nintzen, hezkuntza edukitzeko nire aitak jasan behar izan zituen zailtasunak, batez ere. Ezin nuen huts egin. Era berean, hezkuntza garrantzitsutzat jotzen duten eta gogoko duten beste neskatila guztientzako errespetu falta handia izango litzateke”.*

Hau gutxi izango balitz, zailtasun gehiago iristear zeuden, eta komunikazioa, horietako bat besterik ez zen. Garai horretan ez zegoen ez internetik ezta telefonorik ere. Noski, aitak ez zuen aipatutakoak erabiltzeko ezagutza nahikorik; hark, ordea, ikasketetan animatzeko eta gidatzeko idazten zion. Neskatilak bazekien bere familiaren babesik gabe ez zuela horrelakorik lortuko. Eta ez hori bakarrik, hezkuntzak konfiantza eta kontzientzia emango ziola ere bazekienez, aurrera jarraitu eta hainbeste amesten zuen hezkuntza eskuratzeari ekin zion.

Denbora ez zen gelditu beretzat eta laster lortutako lehen hezkuntzako titularen ondoren itzuli zen bere herrira. Urte horiek pasata bere emaitzak eta jarrera aldatu ziren, bere autoestimua hazi egin zitzaion eta bigarren hezkuntzan matrikulatzera ausartu zen. Hasieran ez bezala, hezkuntzak modu positiboan eragin zion eta bere ikaskideekin berriz topatzeko ilusioa sentitzen zuen.

Bere formakuntzaren aurkako iritziak agertzen hasi ziren, berriz, bere etxean, egoera guztiz kontrakoa izanik. Alde batetik, ikasten jarrai zezan nahi zuen aitak, beste aldetik, amak bere ezkontzaren inguruan pentsatzen zuenean. Gainera, egoera ekonomikoa ez zen oso ona.

“*Skarduko Ikastetxean izena emateko ilusioak desagiten hasi ziren. Zorionez, gehien behar nuenean zorte ona etorri zen berriro ere niregana”.*



BIZITZAKO ISTORIOAK

Aitak, familia behartsu eta txiroei laguntzen zien eta doako hezkuntza eskaintzen zuten GKE bat existitzen zela ikusi zuen, FIFBM delakoa, hain zuzen ere.

Skardun ere kokatzen zen neskontzako Bigarren Hezkuntzako Eskolan onartua izatea lortu zuen. Bere bizitzako bigarren etaparik garrantzitsuen hasten zen, alegia edozein pakistandarren bizitzaren baitan batxileran sartzea zerbait garrantzitsua denez geroztik, batez ere Baltistanen. Hizkuntza oztopo





guztien gaineratik, ekimen askotan parte hartu zuen Eskolako egonaldian zehar. Bere ama hizkuntza balti delakoa da, Eskolan urdua eta ingelesa hitz egiten diren arren; honek gauzak asko zailtzen zituen eta erronka berria suposatzen zuen. Unibertsitatean zeramatzan bi urtetan pertsona berri bat bihurtu zen, emakume adierazgarri eta seguruan.

“*Ez dakit nola izan zen, baina denbora pasa eta azterketak gainditu nituen. Harrezkerotik, hezkuntza da nire gurutza eta beti gauza berrien bilaketan jarduten dut, ezagutza berrien bila alegia. Hezkuntza nire hil edo biziko gida izan da”.*

Bitartean, gauzak bere jaioterrian oso ezberdin ari ziren bizitzen. Bera bezalako neskatala gehienak, oraindik nerabeak izanik, ezkondu egin ziren jadanik. Ezkontza goiztiarrak oso ohikoak dira Hushe Haranean, hamabost urte inguruko neskatilak bizpahiru umerekin ikustea bezain ohikoak.

Rojiak hogeitau urteak bete zituenean, ikasketa gehiago nahi zuen. Ordurako, bertako ohituren presioa zela eta, ama geroz eta larrituagoa zegoen bere alabaren ezkontzarekiko, denbora guzti honetan nahiko ulerkor egon arren. Azkenean, bere gurasoen gurarira makurtu eta ezkontzea erabaki zuen.

Horrela, Gobernuko maila baxuko funtzionario batekin ezkondu zen. Bere soldata altua ez izan arren, pertsona ona zen, neskatilarekin beti atsegina, ondo tratatzen zuen. Ezkontzaren ondoren, nahiz eta GKE batek zuzendutako eskola pribatu batean irakasle izateko hautatua izan, bere familia politikoa ez zen ideia horren aldekoa. Haien ustez, neskatilak landa-lanetan egin behar zuen lan, haatik, bere senarrak ez zuen hala uste eta emaztea bultzatzen zuen.

Rojiak ez zituen inoiz etxeko lanen ardurak ukatu, eskolaren ondoren bere amaginarreba laguntzen zuen etxean eta animalien zaintzan. Ikastetxean ez zuen klase bat ere galdu, eta atsedenaldiak aprobetxatzen zituen beste



klaseetarako irakurketak prestatzeko. Eta horregatik, adierazitako grina eta dedikazio guztiagatik hain zuzen ere, ikastetxeako zuzendari hautatu zuten, urtebete beranduago. Orain ikastetxea zuzentzen du arreta handiz, eta baliabide eskasien gaintik, hezkuntza eta asistentzia hobetzeko xedearekin planteatzen diren gaien inguruan noizbehinka irakasleagoarekin bilerak antolatzen ditu.

Bere aburuz, FIFBMk bere bizitza zeharo eraldatu zuen, alegia beste inolaz ere lortuko ez zuena lortu du. Orain bere eginkizuna hezkuntza bultzatzea da, bereziki bere herrialdeko neskatilen artean, haien ama guztiei beharrezkoa den konfiantza helaraziz alaben eskolatzea bultzatzea dezaten; berekin egin zuten bezalaxe. Egunero bere ikasleentzako segurtasuna eta ezagutza transmititzen ahalegintzen da.

“*Klasean nagoenean ikasle bakoitzarengan nire irudikapena ikusten dut islaturik. Eta modu aktiboan ez parte hartzeko, nire galderak saihestearren atzean esertzen direla ikusten dudanean, beraiengana gerturatzen naiz dankaten zailtasunetan lagundu eta sentitzen duten beldurrari uko egin diezaioten. Nire ikasleek igortzen didaten errespetuaz eta maitasunaz jabetzen naizenean zorrioneko sentitzen naiz.*

Erabateko bizitza ez gozatzen dut nire alaba eta senarrarekin. FIFBM-ren baldintza gabeko bultzadagatik izan ez balitz, alegia momentu zailetan ere gurekin egon zirenena, hau guztia ez zen posible izango. Orain nire desioa zera da, nire herrian hezkuntza sustatzea eta ideia hau herritar guztiei barneratzea. Nire jendearengatik beti errezatzen dut eta beraientzako hoberena espero dut, eta bide batez, jendarte hobego bat eruikitzeko tresna eta bitarteko gisa hezkuntza dela giltza uste dut.”



II.

Izpi itxaropentsua

Zubaida-k hogeita hiru urte ditu. Hushe Haranekoa da. Lau anai eta ahizpa bat ditu. Oso langilea da eta oso prestatua dago. Bailarako beste nesketatik bereizten du honek.

Hushekoa oso jendarte kontserbakorra da. Bertan emakumeak ez dituzte oinarrizko giza eskubideetako asko, hezkuntza tartean. Bestalde, eskualdea kolpatzen duen txirotasunak gizonak ere hezkuntza aukeretatik baztertzen ditu. Zubaidaren aita ere analfabetoa zen. Honek denda bat zeraman Hushe bailaran. Dendari gisa, mota orotako pertsonekin harremantzen zen, bertakoak zein turista kanpotarrak, eta haiekin eztabaida txikiak edukitzen zituen. Hartu-eman haiek bere ikuspuntua aberasten eta inguruko enaren ezberdina zen ikuskera edukitzen lagundu zioten. Hala, bere seme-alabek hezkuntza on bat lortzeko desira indartsua garatu zuen, berak pairaturiko txirotasunetik ahalik eta gehien aldendu zitezten. Emakumeen hezkuntzaren aldeko apustu irmoa egiten zuen eta bere ideiak indartsu defendatzen zituen, baita bere dendan beste hainbatekin eztabaidatzen ere.



Gauzak horrela, Zubaidak bere ikasketak jarraitu zituen batxilergoa erdietsi arte, eta goi mailako ikasketak egiteko prestatu zen. Eskualdean batxilergoa ikasteko zentrorik ez zegoen eta, ikasten jarraitzeko bere ametsa betetze aldera, beste herri batera mugitu behar izan zen. Honako ideia hau, alabaina, ez zen hain erraza. Izan ere, bere herrian, emakume bat bere ikasketak jarraitzeko hiriz aldatu dadin bekatutzat hartzen da.

“Lehen mailako bezkuntza ikasketak amaitu ondoren, aitari esan nion ikasten jarraitu nahi nuela. Hura ados zegoen. Gure herrian gizonak gaien eztabaidatzeko taldeetan jesartzea ohikoa zen. Aitaren denda kanpoko bankuak ziren, jende askorentzat (aitaren laguntzat batipat), eztabaidarako leku egokiena. Aitak haiekin eztabaidatu obi zuen nire ikasketak bukatzera Skardu edota Khaplura bidaltzeko aukera. Guztiak saiatzzen ziren nire aita konbentzitzen, alaba kanpoan ikastera bidaltzea erokeria zelakoan. Herrian oso aipatua izango zela eta, ondorioz, inork inoiz nirekin ezkondu nahi izango ez zuela esaten zioten. Ohiko iritziazen arabera, emakumeek etxeko lanetan jardun, familia lagundu eta lurra landu zein egurra jaso behar zuten, beti egin izan zuten bezala”.

Ordurako, Zubaidak rol tradizional hauek betetzen zituen iadanik. Hamargarren maila ikasten zuen bitartean, bere familia laguntzen zuen, etxeko lanen karga ere bere gain artuz. Hori zela eta, askotan haserretzen zen bere aitarekin. Izan ere, Zubaidak ez zuen nahi aitak bera kanpora joatearen aurka jendeak egiten zituen iruzkinak entzun zitzan. Aita bidegurutze batean zegoen. Alabaren ametsak bete nahirik ere, ezin zituen bere gizarteko arau eta ohiturak ahaztu. Auzokideen balizko jokamoldeaz beldur



zen. Patuak, azkenik, edozein aukera moztu zuen, aita hil eta etxeko inork ezin izan baitzuen halako ardurarik hartu. Ahizpa zaharrena iadanik ezkondua zegoen eta anaiak bera baino askoz ere gazteagoak ziren.

Aitaren heriotzaz geroztik, egoerak aldaketa handia izan zuen. Hezkuntzan jarraitzeko haren eskaerak ez zuten ondoriorik eduki, bere gain hartu behar izan zituen etxeko ardurak zirela eta. Aitaren heriotzagatik itxita egon ondoren, anaia txikienak hartu zuen denda. Honek ezin izan zuen txukun kudeatu, eta etekinak ez ziren nahikoak gastuak ordaintzeko.

Orduan, Zubaidak ideia bat izan zuen: Herrian emakumezkoen denda bat irekitzea. Harentzat eta familiarentzat ideia ona zirudien, ez baitzegoen halako dendarik herrian. Ama eta ahizpari haren ideien berri eman zien. Lehen une batean amak ez zuen ideiarekin bat egin. Izan ere, ez zeritzon egoki, dendak gizonezkoek bakarrik ireki izan zituzten herri batean. Baina ez zuen, haatik, amore eman, eta azkenik, bere ama ere erakarri zuen ideiarda. Hala, ausardia batu, kale nagusitik gertu gela bat alokatu eta emakumezkoentzako denda ireki zuen. Zeharo bestelako esperientzia bat izaki, eragin handia izan zuen bai beregan, bai eta herri osoan. Hasieran hautaturiko kokapena ez zen egokiena izan eta, denbora baten ondoren, denda etxetik gertu ezarri zuen. Azkar egonkortu zen kokapen berrian, etxeko babesari esker.

Zubaidaren arabera, hasiera ez zen erraza izan. Izan ere, salgaiak hiritik ekartzeko logistika konplexua behar zen. Baina, bere koinataren eta, denboraren poderioz, anaiaren laguntzari esker, lan hau aurrera eramatea lortu zuen.



BIZITZAKO ISTORIOAK

Garai hartan, ondoko herrian josteta eta puntu-lan ikastaroak eskaintzen zituen GKE bat zegoela jakin zuen. Zubaidak beti izan zuen negozioetarako begia eta, aukera berri bat ikusita, gai honetan interesa hartzen hasi zen. Une horretan ez zuen bere bezeroei klaseak emateko nahikoa jostura maila. Alabaina, bere aukerak hobetze aldera, kurtso hauetan izen ematen saiatu zen behin eta berriz, lortu arte. Hiru hilabetez, GKE horren jostura eta puntu-lan ikastaroak hartzen aritu zen. Denbora hori pasata,





dendan jostun-zerbitzuak ematen hasi zen. Bertan, kuxin, izara eta bestelakoetarako brodatuak egiten hasi zen. Haren lan onak dendan erakutsiz, herrian ospe ona hartu eta irabaziak lortu zituen.

Gaur egun, haren brodatuak *Khaplu Palace* hotolean ere daude ikusgai, eta hainbat erosle kanpotarren eskaerara lanak egiten ditu. FIFBM GKEak ere haren aldeko apustua egitea erabaki zuen, eta hamabost egunez Skardura bidali zuen. Bertan, josteko gaitasun berriak -makineria elektrikoekin egindako artilezko lanak- eta josteko makinaren erabilpenean formakuntza jaso zituen.

FIFBMren laguntzari esker, Zubaidak bere negozioa herrian ezartzea lortu zuen, bertako erreferentziatzko emakume izatera iritsiz. Bere ideia hutsetik emakumezkoentzako denda zuzentzeraino garatu izana marka historikoa izan zen Hushe Haranean. Alabaina, bere egiazko ospe eta estatusa uneoro erakutsitako saiatze, ausardia eta erabaki-irmotasunari zor zaizkio.

“Gure ama emakume analfabetoa da. Aitaren beriotzaren ondoren, beste inork ezin zuen familiaren kargua hartu. Beraz, ausardia hartu eta emakumeentzako denda sortzera determinatu nintzen. Herriko lehen horrelako denda izatera ziboa. Hasieran, Ama nire erabakiarekin arduratuta eta herriko jendearen iruzkinen beldur zen. Ala ere, nire ideari eutsi nion, eta denbora batez kritika gogorrak jasan ondoren, aurreikuspen ororen aurka, jendeak hain ideia txarra ez zela ikusi zuen. Orain herriko jendeak, aurkakoak ere, nire balentria kontutan hartzen dute, eta bonek ondo sentiarazten nau. Emakume asko nire dendara etortzen dira, dudarik egin



BIZITZAKO ISTORIOAK

*gabe gizonen dendetara joan ordez. Orain, nire negozioia
zabalago egitea da nire ametsa. Lan asko eginez, egunen
batean, etorkizun hurbilean, lortzea espero dut”.*





III.

Arrakasta istorioa

Habiba-k berrogei urte ditu. Hushe Haranekoa da. Hiru alaba eta bi semerekin, senarra Ejertzitoan ari da lanean eta aitagarrebarekin konpartitzen duen etxe batean bizi dira.

Habibak zazpi hilabete zituelarik ama zendu zen. Orduan, aitaren ardurapean gelditu zen alaba. Aitak ama horrenbeste maite zuen, ez zela berriz beste inorekin ezkondu. Bi anai eta bi ahizpa ziren, Habiba gazteena izanik.

“*Madraza -eskola erlijioso islamikoa- batean ikasi nuen eta ez nuen beste ikastetxerik ezagutu. Aita nabiko tolerantia zenez edozer gauza galdetzeko arazorik ez nuen inoiz izan. Behin, Eskola Urdu -irukaskuntza tradizionalekoa- batean ikasi nahi nuela aipatzea otu zitzaidan, eta orokorrean bera nabiko adeitsua izan arren, momentu hartan ez zela inolaz ere onuragarria erantzun zidan irmotasunez. Hezkuntza Urdua, baina zuzen ere bide zuzenetik urruntzen gintuen distrakzioa*



besterik ez zela esan zidan. 'Fededun emakume bat egingo zaitut', jakinarazi zidan. Ez nuen inoiz ulertu zer esan nahi ote zuen horrekin, baina aitarengan konfiantza handia nuen eta aipatzen zuen edozer ondo iruditzen zitzaidan. Aita hil zenean hamabi urte nituen, baina ez nuen berriaz ikastetxez aldatzeko burutapenik izan. Momentu horretan, anai zaharrak ez zuen inoren laguntzarik behar, Karachin ikasi eta lan egiten zuen. Aitaren heriotzarekin, Karachitik itzuli eta familiaren ardura guztia hartu zuen bere gain''.

Nolanahi ere, historia amaigabe batean bihurtu zen bizitza. Arrebaren eta anai zaharraren ezkontzen ondoren, bere etxeko erantzukizuna modu nabarmenean areagotu egin zen, ohiko funtzioak bere gain hartu behar izan zituen: egur bilketa, animalien mantentze lanak edota iloben zaintza barne.

“*Hamazortzi urterekin ezkondu nintzen. Senarra alboko herrikoa zen eta Ejertzitoan egiten zuen lan. Gurasoak lurperatuta zenden herria eta nire etxea abandonatu behar izate hutsak, miserable izatera sentiarazten zidan. Nire borondatearen kontra, anaiak ezkontza proposamena onartu eta Skardun emaztegai jantzia erosi zidan. Soilik bere erabakia errespetatu nuen eta ezkondu egin nintzen''.*

Urte batzuk pasata bi seme eta hiru alaba izan zituen. Bere senarraren falta oso ohikoa zen lan arrazoiengatik eta aitagarrebarekin bizi behar izan zuen, esleitzen zizkioten eginkizun guztiak bere gain hartuz, bai landa barruan eta baita kanpoan ere. Gela bakarreko etxe txikia konpartitzen zuten. Urte askotan zehar, bere aitagarrebaren ametsa etxe bat eraikitzea zen. Beraz, dirua aurreztu, beharrezko materialak bildu (harria, egurra...) eta igeltsero baten ikuskapenarekin eraikitzeari ekin zioten. Aitagarreba eta



bere artean elkarbanatzen zuten lan gogorra. Alabaina, etxeke eginkizunak eta umeen zaintza amaginarrebaren esku zegoen. Habibak aitagarrebarekiko enpatia handia zuenez, bere seme bakarraren gabezia sentitu ez zezan ikaragarri ahalegintzen zen. Edozein zereginetan laguntzen zion. Azkenean, ilusio izugarriarekin amaitu zuten etxea, poztasun handiz hartuz.


“*Etxe berrira lekualdatzetik gutxira, abrikot bilketatik gertu, hauts hodei bat ikusi nuen mendian. Orduan izan zen gertuen zegoen meskitan berri oso beldurgarri bat zabaldu zenean. Uboldeak zirela eta, herritar guztiok gure etxeak utzi eta toki seguru batera mugitu behar izan genuen. Dударик gabe, etxera korrika joan nintzen. Amaginarreba eta umeak han jarraitzen zuten. Urtebeteko alabak oraindik ezin zuten ibili eta asko larritu nintzen. Mundu guztia etxetik alde egiten zuten, norberaren gauzak hartu gabe herria abandonatzen zen, eta etxera iristean amaginarreba aise urduri aurkitu nuen. Duela urte bat azken uboldeak pairatu genituen, guk kalterik izan ez genuen arren, hildako asko egon zirelarik. Orduan, lebenbailehen umeak hartzeko eta toki seguru batera eramateko erregutu nion. Ondoren abereak aske utzi nituen Jainkoari umeak zaintzeko eskatzen nion bitartean. Herri osoa ondoko herrian batu zen, gau oso beldurgarria pasa genuen. Lo ezinean, gure eta gure etxeen segurtasunarengatik errezatzen genuen oso izututa. Bizirauteko genuen gauza bakarra, etxea eta abereak ziren. Biharamunean, herrira itzuli ginen etxea bere osotasunean aurkitzeko irrikitan, baina ostera, gure ilusio guztiak segituan desegin ziren. Egoera atsekabegarri baten aurrean geunden, eta bat-batean amaginarrebak konortea galdu zuten. Eraikitzen urte askotan luzatu zena, ordu gutxitan bertan behera gelditu zen. Nire bizia osoa begien aurrean pasa*



BIZITZAKO ISTORIOAK

zitzaidan. Gure bizibidea, gure etxea, gure abereak... dena galdu genuen. Denbora laburrean, genuen guztia galdu genuen.

Zorionez, Gobernuak segituan neurriak hartu zituen. Erreskate-taldeen batera, behin-behineko kanpin-dendak ezarri ziren. Ausardiaz baliatu, senideak hartu eta hortik aurrera, denbora batez behintzat, etxe berria izango zenera eramán nituen. Aurretik nire bizitza zaila zela uste banuen,





orain ez genuen ezer ere ez. Gure ondasun guztien galerarekin eta babesteko etxerik gabe, baldintza klimatiko ankerrei bizirautea helburu titaniko gisa aurreikusten zen, alegia ia lortezina zen gauza.

Bizitzako egun okerrenak izan ziren. Oraindik gogoan dut behin-behineko denda batean geundelarik seme helduenak esan zidana: 'Ama, mesedez, emadazu jateko zerbait'. Ingurura so egin, eta ez nuen elikatzeke ezertxo ere ikusi. Amaginarreba begiratu eta negarrari eman zion. Berak itxaropen oro galduta zuen eta shock egoeran jarraitzen zuen. Horrelako irudi baten aurrean, bibotza zoritxarrean uztea besterik ezin nuen egin. Kanpora atera eta negarrari eman nion nik ere. Azkenean, haatik, beste denda batean janaria eskuratu eta semea elikatzea lortu nuen.

Ez naitz momentu bartan nola sentitzen nintzen esplikatzeke gai. Bakarrik Jainkoari errezatzea eta errukia erregutzea besterik ez nuen. Jainkoarengan sinisten jarraitzen dudalako, ziur nago ixten den ate bakoitzeko beste bat zabaltzen dela”.

FIFBM izeneko GKE bat herrian agertu zen.

“Aipatutako GKEko arduradun batzuk herria bisitatu ondoren, kaltetutako etxeak berreraikitzen laguntzea erabaki zuten, eta hautatu zutenetako bat gure etxea izan zen zorionez. Gure azken itxaropena izan zen FIFBM, eta baieti esker ezusteko hau gainditzea lortu genuen, ilusio berriak eraikitzeke kemena eman zigutelarik”.



Habiba orain nahiz eta izpiritu borrokalaria duen ezkonduetako emakume alai izan, bizi osoa hondamendiagatik markatua du. Seme-alabek ikasten jarraitzen dute eta hezkuntza hobego bat eskaini nahi die. Kontzientzia eta aukerak dauzkan emakume bat ezinbesteko kide batean bihurtu daiteke familiaren baitan. Uholdeek zonaldea txikituta utzi bazuten ere, bizitzak jarraitu egin zuen. Hala ere, aurreko lokatzezko eta egurrezko eraikuntzen ordeztu, oraingoan euriteak jasateko gai diren etxebizitza solidoak eraikitzeke aukera izan zuten.

“Behin aitak irakaskuntza erlijiosoa eta tradizionalarik arteko ezberdintasuna azaldu zidala ez dut inoiz aitortu. Baina denbora pasa abala, hezkuntza tradizionalak duen garrantzia ere jabetu naitz. Uste dut biak, bai erlijiosoa eta baita tradizionala ere, beharrezkoak direla.

Gaur pozik sentitzen naizen arren, nire jaioterria herriminez oroitzen dut. Hainbeste ardurak eramaten ditudalarik, gurasoen zein anaien hilobiak bisitatzea ezinezkoa dut. Oraindik nire familiaren falta sentitzen dut, baina bidaiaren gastuak ezin ditut gainean hartu. Alabek hezkuntza erlijiosoa eta tradizionala batera jasotzen dutenez, itxaropena eta baikortasuna galtzen ditut. Eta sari gisa, nik beti nahi izan nuen hezkuntza jasoko dute beraiek”.



IV.

Aldaketa bidean

Kulsoom-ek berrogeita hamabost urte ditu. Hushe bailarakoa da. Haji Alirekin ezkondua dago, berrogeita hamazazpi urteko kontratista batekin. Landa lanetik bakarrik bizi zen nekazari familia batean jaio zen. Anaia gazteago bat dauka. Bere ezkontza usadioen arabera itundu zen, hamar urte besterik ez zituela. Gaur, hiru neska ederren ama da.

Kulsoom bere herriko erreferente da, izan ere, 2005ean Khapluko kontseilurako hautaturiko lehen emakumea bihurtu zen.

Hamar urte zituela ezkondu zen Haji Ali lehengusuarekin, honek hamabi zituelarik. Haji Ali bere izebaren seme bakarra zen. Honek landa zitezkeen lur asko zituen, baina ez zuen nahikoa lan indar hauek goldatzeko. Hala, arazoari aurre egiteko, semea Kulsoomekin ezkondu zuen. Bikote gaztearen lehen semea Kulsoomek hamasei urte zituela jaio zen. Ez zitzaion batere errez egin landako lanak aurrera eramaten zuen bitartean bularra ematea.



“Haurra jaio zenean ez nekien ondo nola zaindu behar nuen, oso gaztea bainintzen. Ala ere, beste eginbeharrekin betetzen nuen bitartean bera hezteko moldatu nintzen. Izeba laguntzen nuen, sukaldekotan, ura jasotzen, goldatzen, jorratzen, ureztatzen, uzta jasotzen, egurra hartzen eta ganadua zaintzen”.

Horrela irabazi zuen familiakoen errespetua. Beretzat, bere buruarekiko errespetua da garrantzitsuena. Behin, senarrari honakoa ihardetsi zion: ez ziola inoiz janari onik, arroparik edo luxurik eskatuko, baldin eta hark errespetatzen bazuen, eta jendaurrean iraintzen ez bazuen.

Dirudienez bizitzak ez zion irribarre egiten Kulsoomi. Ezkontza ondorengo urteetan hainbat galera garrantzitsu pairatu zituen.

“Bost alaba eta bi seme erditu nituen. Haietariko hiruk baino ez zuten biziraun. Seme zaharrena zazpi urte zituela hil zen, txikia hiru urterekin, eta alabetako batek hilabete gutxi iraun zituen bizirik. Ez dakit zergatik hil ziren. Amaginarrebak zioen espiritu txarren ondorioa zela. Oraindik gogoan dut seme zaharrena hil zen eguna, norbaitek arnasa lapurtu balit bezala sentitu nuen. Hainbat urtez negar egin nuen, eta gaur arte, min horren oroipenak ditut oraindik.

Nire semearen heriotzaren lehen urteurrenean, senarra beste andre batekin ezkondu zen, nik ezin niolako familiako abizena eramango zuen beste seme bat eman. Ezin nuen bere lotsagabekeria sinistu. Haurra besterik ez nintzen bere etxera etorri nintzenean, eta haurtzaro guztia berekin



pasa nuen, bera maitatu eta zainduz. Eta, hala ere, beste emakume batekin ezkonduz traizionatu ninduen. Emazte berriak ere ezin izan zion nahi zuen semea eman. Hala, dibortziatu egin zen eta beste batekin ezkondu. Arrazoi bera medio, eta abiadura berdinarekin, honetaz ere dibortziatu zen. Eta berrogeita hamabost urterekin berriaz ezkondu zen, beste herri bateko emakume batekin. Honek nahi zuen semea eman ahal izan zion, eta, azkenik, harekin zoriontsu izan zen, eta ni ere beregatik zoriontsu sentitu nintzen”.

Senarraren joan etorriak alde batera, hark eta bere familia politikoak ez zuten Kulsoometaz arduratzeari utzi sekula. Haiei esker lortu zuen Hushe bailarako kontseilu kide postua, 2005ean. Maila hau lortu zuen familiako lehen emakumea izan zen, eta, oraingoz, bailara osoko bakarra. Bere jendarte gaitasunek eta perseberantziak, komunitateko kideen konfiantza eta haien bozkak irabazterainoko bidea ireki zioten.

Kulsoomen arabera, proposamena alde batera utzi zuen Zaharren Batzordea erabakia esatera joan zitzaion lehen aldia. Hala, kargua eduki gabe ere komunitateagatik aktiboki lan egiteko konpromezua hartu zuen. Emakumezko erreferenterik ezean, politikan parte hartzearen ideiak beldurtu egiten zuen. Pentsatzeko denbora bat eskatu zien, eta familiaren babes bilatu zuen erabaki garrantzitsua hartu aurretik.

Senarra bigarren aldiz ezkondu zenean, itxaropen ezak amore emateko puntuan eduki zuen. Baina bere barne indarrak berriro eman zion ausardia, eta oraingoan Jaungoikoak beste aukera bat eskaintzen ziola pentsatu zuen. Oraingoan lan postu gisa. Bere bizitza komunitateari zerbitzatzera bideratu ahal izango zuen, eta zoriontsu sentitu zen. Senarrak kontseiluaren kide izaten utzi



BIZITZAKO ISTORIOAK

zuen, hark proiektuak eta komunitate lanak birpasatzeko baldintza jarrita. Beste baldintza bat izan zen bizitza politiko eta familia bizitzaren arteko orekaren mantentzea.

Kulsoomek dioenez, lan hau izan zuen artean arazo askori egin zien aurre. Arazook gizonak zuzendutako jendarte batean bizitzeak emanak ziren. Izan ere, jendarte honen arauak emakumeen partehartze politikotik etsiarazten eta haien mugikortasuna mugatzen





dute. Nagusien kontseiluak aukeratuta ere, bazegoen oraindik edozein modutan atzera botarazi nahi zuen jendea. Motibazioa kentzeko, larderia erabiltzen zuten. Iruzkin gaiztoekin probokatzen zuten, adibidez, senarrari gizonezko haur bat emateko gai izan ez bazen posturako gai ere ez zela esanez. Horrez gain, landako emakume analfabeto izatea eta ondorioz postua aurrera eramateko gai ez zela ere aurpegiratzen zioten.

Ala ere, salaketa guzti horiek ez zuten bere helburua uztea eragin. Emakumezko politikari gisa, eta gobernuak utzitako baliabide urriekin, bi ur erreserba eraiki arazi zituen, nekazaritza babestu eta lurraren higadura ekiditeko. Are gehiago, bi zubiren eraikuntza burutu zuen, herrira sarrerak mugatzen zituzten mugikortasun arazoak konpontze aldera. Zubiok herritarrei, bereziki emakumeei, ibaitik ura ekartzea errazten zioten, eta hauek bere gain hartzen duten lan eskerga arindu.

Herriko emakumeen ahalduntzeari dagokionez, ebaketa eta josteta ikastaroak ematen zituzten hainbat Emakumeen Bokaziozko Zentro -Vocational Training Centers- (VTC) sortu zituen. Lehenago, emakumeek nekazaritzan bakarrik parte hartzen zuten, lanagatik inolako diru-sarrerarik lortu gabe, Kulsoomek dioenez.

Usadioz, jendarteak emakumearen zeregina erditu eta gizonak zaintzea dela onartzen du, beren kabuz asetzeko eskubiderik gabe.

Hain zuzen ere, VTC sortzeko ideia herriko emakumeak ahalduntzeko sortu zen, hezkuntza eman eta haien gaitasunak bultzatuta. Zentro hauek emakumeen alde egiten dute, eta etorkizuneko independentzia ekonomiko bat erdiestea eragin dezaketen negozioak sortzeko animatzen dituzte. Jendartean



antolatu eta autosufiziente izanik, emakume hauek maila ezberdinetan dagozkien beste arazo batzuei aurre egin diezaiokete. Adibidez, etxeko erabakiak hartzen parte hartuko dute, eta haien iritzia entzunak izango dira. Ahalduntze berri honetatik, maila lokaleko politikan sartu ahal izango dira, era haiek izango dira status horretatik haien komunitateetan emakumeen independentzia politiko-soziala sustatuko dute.

Kulsoomek ahal bezainbeste emakume motibatzen ditu, eta herriko bilera eta eztabaidetan sartuz konfiantza gehiago edukitzen laguntzen die. Hori dela eta, bere eskualdean erreferentziatzko emakume bat bihurtu da. Aldaketaren aldeko bere desira sakonak berriro ere argi utzi du, gizonek dominaturiko jendarte batean ere, emakumeak baduela zer esan eta berdina izan daitekeela. Hala, emakume irakasleak, enpresariak edota politikariak izan daitezkeela. Bere pausuen atzetik, emakume asko aurkezten dira hautagaitza politikoetan.

“Nire bizitzako berrogeita hamabost urteak birpasatzean, nire buruarekin aseta eta zorientsu sentitzen naiz lortu dudanagatik. Mendiko aparteko herri batean jaio nintzen, eta ezin izan nuen eskolara joan edo haurtzarora gozatu. Bizitza guztian, esklabo bat bezala tratatu naute bi familiek.

Hala ere, eskualdeko emakumeen etorkizun eta bizitza egoerak hobetzeko zerbait produktiboa egin dudalakoan nago. Gutxienez, orain emakume batek politikan parte hartu nahi bada bada bidea ireki dion erreferente bar. Bere ideiak garatu eta politikan parte hartzea ez da berriro traba izango beldurrik gabeko emakumearentzat”.



V.

Non gogoa, han zangoa

Abida izeneko hogeita hamahiru urte neskatila baten istorioa da hau, haurtzarotik ezintasun fisikoa izan arren bere helmugak erdiestea lortu zuen ausardiaz eta barne indarraz baliatuz.

Oraindik gaur ere, ume garaian bizitako zailtasunetaz oroitzen da normalean, lokatzez egindako gela txiki batean baztertua, Hushe Haraneko mendiko herri galdu batean. Gelaxka hura izan zen bere unibertso bakarra, izan ere, kanpoko bizitza erabat ezezaguna zen beretzat.

Karakorum mendien inguruko toki honetara bertaratzen dira mundu osoko mendizaleak, nazioartean ospe handikoak diren K2, Gasherbrum I, Gasherbrum II, Broad Peak eta bestelako mendiak eskalatzeko asmoarekin.

Guzti honetatik at, Abidak poliomieltis delako gaixotasuna hartu eta bere mugikortasuna modu bortitzean murriztu egin zen, bere gelatik ia atera ezinik gelditu zelarik. Horregatik, betidanik uda izan zaio urtarorik gustukoena, leihoa zeharkatzen zuten eguzki izpiekin gozatzen zuelako.



Gaixotasuna zela eta, ibili zailtasunez egiten zuen eta deabruak hartua omen zegoela esaten zion amak. Garai hartan berak ez zekien hitz haiek zer esan nahi ote zuten, ezta beste umeekin jolasteko ezinezkotasunaren zergatia ere. Baina urteak pasa ahala gaixotasunari buruzko interesa areagotzen joan zitzaion.

Bere ezintasunaren arrazoien inguruan, aitak aipatzen zion: “*Bost urte zeneuzkela oso gaixo jarri zinen. Sukarretatik ez zinen sendatzen eta zure osasunak okerrera egiten zuen pixkanaka. Skarduko ospitalera eraman zintudan eta mediku batek poliomieltis delakoa diagnostikatu zintuen, bain zuzen ere inoiz errekuperatu zaren birusa*”.

Gaixotasunaren berri txarrak gainezka eginda, bizi osorako gela hartan baztertua egon beharraren pentsaera hutsak ilusio guztiak zapuztu egin zitzaizkion. Moldakaitza sentitzen nintzen. Leihora gerturatzen zen eta so egitean bere urte bereko neskatilak ikusten zituen baserriko lanetan euren gurasoak laguntzen, animaliak elikatzen edota ikastetxera joaten; sekulako inbidia sentitzen zuen.

Karakorum mendiaren azpian kokatzen da bere herria, tenperatura orokorrean gradu negatiboetara heltzen delarik. Herritarren gehiengo txiroa da eta egiten duen hotz ikaragarriari aurre egiteko baliabide nahikorik ez dago. Negu denboraldian leiho ondoan esertzen zen eta bere lagunak ikusten zituen elurrezko panpinak egiten eta jolasten. Hala ere, oinazealdia ez zen hor bukatzen. Askotan amonak momentu txarrak pasarazten zizkion, minusbaliotasuna gogorarazten eta gurasoentzat betirako karga handia izango zela jakinarazten. Orduan pentsaera oso larriak bururatzen zitzaizkion, esaterako gurasoek zenbat denbora gehiagoz egon beharko ote ziren berekin, eta gurasoak hildakoan zein egongo ote zen bera zaintzeko, besteak beste. Itxaropenik gabeko etorkizun oso ilun batean bilakatu zen bere bizitza. Ez zuen nahikoa izan



ordea, eta ausardiaz baliatuz bere patua eraldatzeko asmoz etengabe borrokatu zuen bestelako bizimodu baten aurkikuntzan.

Balio tradizional eta kontserbadoreak mantentzen dituen gizarte batean hazi zen Abida. Izan ere, emakumeentzako hezkuntza ez dute batere atsegin eta alabak ikastetxera bidaltzen dituzten familiak etsiaraziak izaten dira, hezkuntza horrek suposatzen omen duen kostu handia argudiatuz. Bestalde, ostera, negu gorriari aurre egiteko egur bilketa eta mantenua lehentasun gisa ulertzen da.

Hezkuntza denbora galtze eta diru xahutze bezala ulertzearena, inguru honetako Iparraldeko biztanleen artean oso hedatua dagoen pentsaera da. Gainera oso ohikoa da hamabi urteko neskatilen ezkontza; era berean, mutikoak ere presio sozial hori pairatzen ez daude salbuetsita. Azken hauek, hezkuntzaren inguruko interesa gal dezaten bilatzen da, mendi-gida edo zamaketari bezalako lanetan euren parte hartzea bultzatzen, bide batez familiaren sostenguan beste euskarri handi bat bermatuz.

Abidaren aita den Muhammad-ek ezinegon handia sentitzen zuen alabaren etorkizunaren inguruan. Nolabait epe luzean bestelako laguntzarik gabe bizitzeko aski izatea nahi zuen. Horregatik, menpekotasun oro ekiditeko berak zuen ezagutza tekniko guztia transmititzeko erabakia hartu zuen. Herriko jostunari zera eskatu zion: bere teknika komertzialak alabari erakusteko, aitaren pentsamenduarekin bat etorriz. Jostunak bere ikasleen artean neskarik inoiz izan ez zuenez, asko harritu zen.

Rehman agurea izan zen herriko lehen jostuna. Bere ikasleek, denak mutilak, atsegin izateko zaila zen pertsona zela aipatzen zuten. Abidak, ordea, agurearen admirazioa lortu zuen, ezustean agertutako gaitasunak zirela eta. Edozer gauza ikasteko trebetasun



BIZITZAKO ISTORIOAK

berezia zuela esan omen zion neskatilaren aitari. Jostunaren iritziak moral baikorrago bat eskuratzea suposatu zuen, eta harrezkero edozer zuela posible pentsatu zuen.

“*Aitak Skardutik josteko makina bat ekarri zidaneko egunaz oroitzuten naiz; hamasei urte neuzkan eta ilusio ikaragarria sentitu nuen. Gau osoan josteko makinaren*





alboan egon nintzen. Nire lehen lana, amonarentzako alkandora bat izan zen, eta lehen aldiz amona hain pozik sentitu zen inoiz ez bezalako besarkada luzatu egin zidala. Esperientzia hura eta gero, bizilagunentzako eta herriko beste jendearentzako arropa josteari ekin nion. Momentu hartan, arropako 80 errupia pakistandarra irabazten nituen. Dirua amari eman arren, gozokiak erosteko rupi gutxi batzuk gordetzen nituen. Lagunek herriko dendan gozokiak erosten zizkidaten eta nik beraiekin partekatzen nituen”.

Familiarentzako diru sarrera baliagarrian bihurtu zen jostura, eta horregatik oso harro sentitzen zen. Neskatila modu hain aktiboa zegoen lanean, bere ezintasunaz ahaztu egin zela. Bat-batean, bere aurretiko bizimodu goibela zerbait produktiboan eta atseginekoan bilakatu zen. Skardun bizi zen senitarteko baten bidez bordatu-puntua egiten ikasi zuen eta segituan aditu batean bihurtu zen, bere lanek ospe handia lortuz herrian. Erregioa bisitatzen zuten mendizaleek ere, atzerritar ugari barne, neskatilaren lanak ezagutzeko interesa izan zuten, nahiz eta baliabide eskasien ondorioz bere adimen guztia ezin izan zuen erakutsi. Berezkoa zuen talentuaren ondorioz, onarpen sozialaren bidean bere minusbaliotasuna ez zen oztopo izan. Horrela, emakume ausart eta ziur batean itxuraldatu zen. Halere, aitik tradizioei men eginez, alabaren ezkontza desiratzen zuen eta handik gutxira hala izan zen; Ali izeneko igeltsero gazte batekin ezkondu zen. Mutikoa ondoko herrikoa zen, eta tradizioak agintzen duena gaindituz, neskatilaren herrira lekualdatzera onartu zuen. Senarra gizon langilea zen, etxeko eginkizunetan laguntzeko beti prest zegoelarik. Era horretan adibidez, ur bila zihoan bezalaxe, aldi berean neskak burutu ezin zituen eginkizunetaz ere arduratzen zen.

Segituan, FIFBM GKEak Lanbide Gune bat sortu zuen herrian eta, zorionez, beste emakume batzuk jantzigintzan prestatzeko



Abida kontratatu zuten. Eta modu inkontziente batean, gizarteko kide aktiboak izateko emakumeen pixkanakako ahalduntzea lortu zuen. Zentroetan esaterako, goi-denboraldietan saltzeko, bordatuak, poltsak, burko-azalak, diru-zorroak, ohe-estalkiak eta bestelako dekoraziorako piezak egiteko negu gorriko ordu luzeak aprobetxatzen zituzten. Nazioarteko turistek ere nesken lanak enkargatzen zituzten. Horrelako lanbide guneei esker emakume askok ikasi zuten josteko artearen inguruan.

Herritarren %90ak nekazaritza eta turismoa bizibide bakar gisa izan arren, Abidak eta senarrak bizimodu on batez gozatzen zutenenez salbuespena izan dira, nahiz eta landatzeko lur eremurik ez eduki.

Bizitza errepasatzen duenean, hauxe aipatzen du Abidak:

“Oso pozirik nago Mashallah-ren esker lortu dudanarengatik. Nire haurtzaroan zehar ezertarako gai ez nintzelakoaren etsipena pairatu nuen, emakumezkoen landa eremuko eginkizunetan laguntzarik ezin nuelako eskaini senitartekoen kritika gogorrak jaso behar izan nituelarik. Gelatik ateratzen nintzen bakoitzean auzokideen isekak jaso behar izan nituen, eta horren ondorioz nire lokatzezko gelaxkatik irteteko ausardiarik ez nuen izaten. Eta zehazki horregatik, neure lanaren bitartez familia mantentzeko gai izango nintzanik. ez nuen sekula espero. Besteak baino gutxiago naizela ez dut sentitzen. Nire lana maite dut, eta bizimodua ateratzeaz gain, inguruko emakumeei nire ezagutzak eta gaitasunak transmititzea ere oso pozgarria dela iruditzen zait; laburbilduz, auto-ahalduntze bidean pauso handia alegia”.



VI.

Izar argitsua

Haleema-ren istorioa txirotasunaren mugan garatzen den hamahiru urteko neska baten historia da. Hushe bailaran jaio zen, Karakorum mendietako paraje itzel batean. Etxean zortzi ziren, gurasoak, hiru ahizpa eta bi anai. Gaur egun, batxilergoko hirugarren maila ikasten dihardu, eta ikasketekin jarraitu nahi du, irakasle izateko bere ametsa betetze aldera.

“*Irakasle izan nahi dut, eta, lortzen dudanean, arropa, zapatak eta gozokiak erosiko ditut, niretzat eta abizpentzat*”.

Gulan Ahmed, Haleemaren aita, da etxera dirua eramaten duen bakarra. Nekazaritza txikian dihardu, eta, garaian, zamaketari gisa ere egiten du lan, familia zabala elikatzeko. Xirotasunak eta hezkuntza faltak jendarte kontserbakorra elikatu eta pertsonen oinarrizko eskubideak, bereziki emakumeenak gutxiestera darama.



BIZITZAKO ISTORIOAK

Ingurune honetako biztanleen lehenetsun bakarra bizirauteko adina diru irabaztea da. Hezkuntza beharrezkoa ez den denbora eta diru xahutzetzat dute, lehenetsuna etxeoak mantentzea delarik. Hori dela eta, gizonetzko askok nekazari zein zamaketari gisa lan egiten dute oso txikitatik. Baina badira beti salbuespenak, eta batzuek, mutilek batik bat, hezkuntzara sartzea lortzen dute, etorkizun hurbil batean familia mantentzeko ardura hartzeko. Kontran, emakumeak nekazari eta etxeo lanetara bideratuta





daude, haien hezkuntza gaiztakeria eta garrantzirik gabekotzat hartzera iritsiz.

Hushe bailarako emakume gehienak euren jendartearen zapalkuntza haien patua dela onartzen dute. Haleema, baina, salbuespena da. Izan ere, bere patuaren gainean idazteko adinako azkarra izan da. Neska inuzente bizi eta indartsua da, hezkuntzaren bidez bere ametsen bideak argitzeko erabakia hartua duena. Azkarra eta langilea da. Bere kideek ez bezala Ingelesa eta Urdua ditu ikasgai gogokoenak. Betidanik, bere arreta bereganatu dute Bailara bisitatzen duten kanpotarrek, eta ahal bezain bestetan jarduten da haiekin, ingelesez.

“*Bailarara kanpotarrak datozenean haiekin Ingelesez berba egiten saiatzen naiz. Horrek poztu egiten nau, haiekin harremana egin zein nire ingeles hizkuntza gaitasuna hobetzeagatik. Behin, simaurra sorora eramaten ari nintzela, agurtu ninduen andre bat ikusi eta bueltan agurtu nuen. Gerturatu eta nolakoa nintzen eta zein izen nuen galdetu zidan, beraz, harekin tarte batez hitz egiteko aprobetxatu nuen”.*

Haleemaren aitak ere hezkuntza izan dezan nahi du, baina etxeko diru egoerak ezinezko egiten du. Diru sarrera txikiokin, zaila egiten da familia guztia aurrera ateratzea, eta are gehiago hezkuntza lortzea. Alabaina, aita gogor borrokatzen da bere haurraren gura asetzeko. Neskak ere badaki hori.

“*Behin, aitari galdetu nion ea ikasketak jarraitu abal izango nituen, eta hark, dirua lortu ezkerro, lagunduko ninduela ziurtatu zidan”.*



Haleema ikasle ona izateaz gain, neska arduratsua da. Egunero, goizean goiz jaikitzen da, ganadua zaintzeko.

“Gure abereen zaintzaz asko arduratzen naiz, izan ere, haiek ematen digute edaten dugun esnea, eta esnea gustuko dut”.

Egunero, eskola ostean, ama laguntzen du egurra bilatzen, eta simaur saski handiak kargatzen ditu soroetaraino, ongarrigisa. Egiten dituen lan gogorrek alde batera utzita, begietan etorkizunerako konbentzimendua iradokitzen duen dirdira du, eta bere lanaz egunero gehiago gerturatzen da ametsera.

Orain, beharko lukeena bere asmoen bidean gidatuko duen norbait edo bere patruaren norabidea aldatzeko aukera bat da. Bera bezalako neskek ez dira beldurtzen, ez dute uzten iritziz aldarazi ditzaten. Aitzitik, beste guztia alde batera utzita, ametsen bila dihardute, optimismoz aurrera eginez eta, espero dezagun, goiz baina beranduago aurkituko ditu.



VII.

Baitaren gaitza, bestearen ona

Mumtaz Hushe bailaran jaio zen, duela berrogeita hamazortzi urte. Hiru ahizpetatik zaharrena da. Alaba bat eta hiru seme ditu. Ibrahimekin, bera baino hogeitaz zaharragoa den nekazari batekin, ezkondua dago. Hau hogeita bi kanaleko lurren jabea da, zeinetatik hemezortzi landa daitezken, eta lau besterik ez diren antzuak.

Bestalde, Mumtaz-ren aita lur emankorren berrogeita hamar kanalen jabe da. Haien ezin zuten beren lurak goldatzeko jendea enplegatu, eta lan gehiena gurasoek hartzen zuten. Ahizpa zaharrena izaki, bederatzi urte besterik ez zituela ezkondu zuten. Ibrahimek harekin ezkontzeko zuen arrazoi nagusia aitaren lurak herentzian jasotzea zen, Mumtazek ez baitzuen berauek jasoko zituen anaiarik.

Hushe bailaran, ezkontza gehientsuenak bi familien artean hitzartuak izaten dira, ezkontideen desiragatik baino. Maitasunagatik ezkontzea ez da ulergarri, eta bekatutzat dute.



Mumtazen arabera, haren ezkontza hark jakin baino askoz ere lehenago adostu zen.

“*Goiz batean, gosaldu ostean, abuntzak jaistera nindoala, amak deitu eta Ibrahimen etxera joan ez nendin agindu zidan. Segituan galdetu nion arrazoa, baina berak atea zigilatu zutela eta denbora batez ezin izango nintzela joan esan zidan. Hala, amari zín egin nion joango ez nintzela. Baina Ibrahimen etxea landetara bidean zegoen, eta bertatik pasatzean, atea zigilatua ez zegoela ikusi nuen. Harrituta, lagunei galdetu nien zergatik esan ote zidan gezurra amak, eta barre urduria bota zuten. Egia kontatu zidaten. Ibrahimekin ezkontzeko hitzartu nindutela alegia”.*

Hamabi urte zituelarik, iadanik ezkontuta, aita-amaginarreben etxean bizi zen. Bertan, egunero goiz jaikitzen zen, senarrari gosaria prestatzera. Horrez gain, familia laguntzen zuen etxeko zein nekazaritza lanetan, eta abereen zaintzan.

“*Inoiz ez nuen nire feminitatean pentsatu lanean ari nintzela. Egun guztian lan egiten nuen, senarrarekin. Landatzeko baratze-mailak egiten ere laguntzen nion”.*

Hamazazpi urte zituen lehen semea erditu zuenean. Garai hartan, *Daya* -erditzetan laguntzen duen emakumeak- oraindik ez zegoen. Osasun zentrorik ezak emakumeak laguntza espezializaturik gabe erditzera behartzen zituen, gerta zitezkeen zailtasunak gertatuta ere. Emakume asko erditzean hiltzen ziren, Ama-Haurretzako Osasuna -Maternal and Child Health- (MCH) zentrorik ezean. Lehen semea soto batean izan zuen, gordetako



lasto pila baten artean. Haurra jaio eta ordu gutxira hil zen, goizegi jaio baitzen.

“Oso gaztea banintzen ere, asko goibeldu ninduen haurra galtzeak. Haurra erditu eta zazpi egunera, gurasoen etxean bazkaldu eta haurra zein ama gurasoekin gelditu obi dira hilabeterako. Hala, ama bisitatu nuen zazpigarren egunerako. Hura bazkaria prestatzen ari zen sartu nintzenean. Besarkatu nuen unean bertan, negarrari ekin nion. Baina inoiz ez zion garrantzirik eman. Nire senarrari irribarre eginez, esan zion: ‘Begira, neska bat da oraindik eta jada haurragatik negarrez dago. Ez dauka jaio berria bezteko nabikoa senik ere’. Hamazortzi urterekin, bigarren haurra erditu nuen, eta oso gaztea nintzen artean, baina jakin nuen hira zaintzen. Lan eskerga gehiegi zekoa zen, etxeko zein landako lanak egin bitartean zaindu behar nuen haurra. Gure amak haurra eta biok zaintzen gintuen bitartean, aita eta senarra goldatu, landatu, jorratu, jaso eta ureztatzeaz arduratzen ziren. Udan, alabaina, ni nintzen gauerdian jaiki eta landak ureztatu behar zituenen, senarrak zamaketari gisa ere lan egiten baitzuen, garaia etxetik kanpo pasatuz. Egun osoz egiten nuen lan. Askotan haurra negarrez uzten nuen gauerdian, lehentasuna landak ureztatzea zelako. Animalia batek bezala lan egiten nuela pentsatzeak nekatu egiten ninduen, nire sentipenak ukatuz. Orduan, nire buruari zin egiten nion ez nuela utziko seme-alabek nirea bezalako bizitza bizirik zezaten, alabak batez ere”.

Haren bizi esperientzia bera izan zen hezkuntzari garrantzia ematea eragin zuena.



BIZITZAKO ISTORIOAK

“Gogoan dut, senarra herritik kanpoan zela, nire semea eta erraina gaixotu zireneko egun goibela. Skarduko ospitalera eramatea erabaki nuen. Iritsi ginenean, bi zenbaki eman zizkidaten, bat gaixo bakoitzeko. Eta txanda iritsi zenean, irakurtzen jakin gabe, ez nekien haietako zeinetan jartzzen zuen semearen izena. Sinistu egidazue une hartan oso txarto sentitu nintzala. ‘Ikusten, Fatim!’, esan nion errainari. Zerk bereizten gaitu animaliangandik, bizitza





guztian mandoen moduan lan eginda ere ez baldin bagara paper hau irakurtzeko gai?] Orduan, nire seme-alabek, alabak bereziki, hezkuntza duina izan zezaten behar adina lan, are lan gehiago, egingo nuela erabaki nuen”.

Horrela, bere alabak bigarren hezkuntzara sartzeko azterketa gainditu zuen. Orduan, lan eskaintza ugari jaso zituen. Hushe bailaran azterketa hau gainditze nahikoa zen neska batentzat, hezkuntza mailan. Ohikoa denez, azterketa honen ostean neskak ezkontzera ematen dira, inguruan gaizki ikus ez daitezten. Mumtazek alaba hezkuntzarekin jarraitzea Skardura bidaltzea proposatu zuenean, senarrak ohiko iritzea hartu zuen. Alegia, beharrezko ez zela, horraino iristea neska batentzat nahikoa hezkuntza zela, eta laster ezkonduko zuela.

Finean, zuen diru gutxia alabaren hezkuntzan ez inbertitzeko aitzakiak ziren. Khaplu herritik urrun zegoen, eta alaba ezkontzeak, gainera, behar ez zuen gastu batez libratzea zekarren, beren semea Khapluko Eskolara bidali eta zaharrak zirenean haietaz ardura zedin.

Azkenik, senarra konbentzitzea lortu zuen, eta alaba ikasketak jarraitzea bidali zuten. Hori bai, Eskolara joan aurretik ezkontzarako hitzarmena egin behar zuen. Tratu justua zirudienez, alaba lehengusuari hitz eman zion. Neskak kondizio berri bat jarri zuen, Eskolan graduatu ostera arte, bi urtez alegia, ezkonduko ez zirela. Familiek adostasuna eman zuten.

Alaba ikasle ona zen eta arazorik gabe eman zuen izena Khapluko Eskolan. Traba nagusia, ala ere, garraioa zen. Khaplu herritik bost kilometrotara zegoen, eta ezinezkoa zen oinez joatea. Gainera, ezin zuten, matrikulazio gastuez gain, garraio gastua



BIZITZAKO ISTORIOAK

beren gain hartu. Hain zuzen ere, bailarako biztanle gehienek aurre egin behar dioten arazoa da hau. Zorionez, FIFBM GKEak arazo honi heldu eta aterabidea ipini zion, distantzia hauek mozteko behar gehien zutenentzako autobusak jarri eta familia gehiagotako kideei hezkuntza edukitzea ahalbidetuz.

FIFBMk eskainitako aukera hau zerutik eroritako oparia izan zen familiarentzat. Neska batek hezkuntza jasotzeko halako tarreak egitea zeharo ezohikoa zen. Hori zela eta, jendarteak praktika hau





kritikatu eta senargaiaren familia hori ekiditera bultzatzen saiatu zen. Baina Mumtaz, txutxu-mutxuei gor egin eta irmo mantendu zen, jendarte presioa jasanez azkenik alaba graduatu arte.

Hala idazten da Mumtaz-ren historia, alabak berak izan ez zuen hezkuntza izan zezan bidea landu zuen eta bere sinesteen arabera jokatu zuen emakume batena. Semeak ere Bigarren Hezkuntzako ikasketak amaitu zituen, eta ondoren ejertzitoan izen eman zuen. Bigarren semeak, bigarren hezkuntzarako hautapen frogak pasa ostean, lana lortu zuen hegoaldean. Eta hirugarren semea bigarren hezkuntzan graduatu zen, eta ikasten jarraitu nahi du. Seme-alaben arrakasta amaren pertseberantziaren lekuko da. Senarraren eta bere apustu bateratua izan zen, eta horregatik ikaragarri lan egin zuten, bai eta albortxikoak saltzen ere, ahalik eta diru gehien aurreztu eta seme-alaben hezkuntzan inbertitze aldera.

Seme-alabentzako hezkuntza bat lortzeak, hauek ikasten zuten bitartean landako lanean zein abereen zainketan laguntzarik izango ez zuela ere zekarren. Hala ere, ez zuen bere asmoa alde batera utzi eta etxeko arduraren guztia bere gain hartu zuen. Ala ere, eskolatik bueltan seme-alabek beti laguntzen zioten zegozkien lanetan. Bere esfortzu guztiak merezi izan zuen, guztiak hain esperotako hezkuntza jaso zutenean. Eta amaren patu gogorra ez zen bete hurrengo generazioan.

Mumtazek gero eta argiago du bere ekintzen garrantzia.

“*Etxekeoen, lagunen eta jendartearen kritika asko jaso nituen, baina seme-alabak, alaba zehazki, hezteko erabakian irmo mantendu nintzen. Beti saiatu nintzen ondorengoak analfabetismoak eragindako arazoetatik urruntzen. Etxe barnean eta kanpoan lanean, senarrarekin batera nabikoa diru aurreztean lortzen genuen. Seme-alabek*



BIZITZAKO ISTORIOAK

ikasten jarrai zezaten gustatu izan balitzaidake ere, ezin izan genion aurre egin. Hala ere, barro nago profesionalki hazi abal izan direlako, eta orain baien seme-alabei hezkuntza bera eman diezaioketelako. Hezkuntzari balioa ematen diote eta ez dira analfabeto bezai, haien ama bezala. Orain, beren seme-alabentzako hezkuntza hobe baten alde borrokatu abal izango dira”.



VIII.

Emakume ausarta

Honakoa *Zakia*-ren istorioa da. Duela hirurogei urte jaio zen. Nekazaritzak ezaugarritzen duen Hushe haranean jaio zen Zakia. Bailara honetakoa gizonetzkoek dominatutako jendartea da, eta bertan, emakumeak etxeko lanetara eta nekazaritzara zuzenduak daude. Bestalde, haurrak edukitzearen ardura dute nagusiki.

“ Bizitza osoaz, nire emakumezko izaeeraren esklabo izan naiz, etxeko lanak, landatzea eta goldatzea besterik ezin nitzaken egin. Goizean goiz jaki behar nintzen etxekoentzat gosaria prestatzeko, eta ondoren, egun osoan zehar landetan egiten nuen lan. Nekazaritza lanak bukatuta, etenik gabe, ibaitik ura ekarri behar nuen. Are gehiago, albertxiko garaiak are eta lan karga gehiago gehitzen zuten, eta aparteko orduak egiten nituen oihanetik egurra ekartzen. Albertxikoaren prozesua oso konplexu, motel eta nekeza da. Produktuak harri handietan edo teilatuetan barreiatu behar dira, lehor daitezzen. Eguraldi



BIZITZAKO ISTORIOAK

*txarra zetorrenean, korrika batean jaso behar genituen,
belztu ez zitezzen”.*

Zakia hamabi urte zituela ezkondu zuten, haraneko usadioaren arabera. Bere gaztetasunean, ideia lausoa zuen emazte izatea zer zenaren inguruan. Senarraren familiaren estatus ekonomikoa ez zen itzela, eta ala ere, hiru seme-alaba izan zituzten, bi mutil eta neska bat. Familia ugaria elikatzea ez zen lan erreza. Txikitatik,





bestelako landa lanekin alderatuz, baratze-lanagatik zaletasun handia zuen, eta azkar jarri zen bere senarraren albertxiko landetan lanean. Hasieran, jasotakoa merkatuan saltzen zuen, beste hainbat barazkirekin, eta lortutako dirua seme-alaben hezkuntzara bideratzen zuen. Oinarritzko hezkuntza eta osasun laguntza gabezia argia zeuden haranean. Bere analfabeto izaeragatik hunkituta, etxeko egoera txarraren errudun sentitzen zen, eta kosta ala kosta ekidin nahi zuen seme-alabek bere bidea jarraitzea. Bere determinazioa hain indartsua zen non hezkuntzarako dirua aurrezte aldera jatordu bat gutxiago egiten zuen. Baina, bere inguruabarrak alde batere, emakume baikorra zen. Bere burua konbentzitzen zuen, garai txarra noizbait bukatuko zena. Beretzat, seme-alabek noizbait hezkuntza jasoko dutela jakitea helburua lortu artean topatu zitzaken oztopo guztiak baino indartsuagoa zen. Urterik gogorrenetan, semeak batxilergoko gradua lortu zuen, eta ondoren Pakistandar ejertzitoan izen eman zuen. Zorionez, beste semeak lanpostu bat lortu zuen Lahoren, selektibitatea gainditu ostean. Bi semeen lana familiaren diru egoera hobetu zuen, baino horrek ez zuen albertxikondoetako lana gutxitzen. Garai hartan, bertako GKE batek albertxikoen prozesatzeko kurtsoak proposatu zituen. Bailaran halakorik egiten zen lehen aldia zen. Beti eduki izan zuen baratze lanen arte ikasteko interesa, eta dudarik egin gabe bere alabaren izena eman zuen ikastaroan. Izan ere, analfabetoa izaki, berak ezin zuen ikastaroa jaso, baina bazekien alabaren bitartez ikasiko zituela teknika eta moldeak hark azaldutakoan.

Hurrengo denboraldia iritsi zen, eta espero ez bazuen ere, aurreko urtean albertxikoen artea ikasteko egindako esfortzuak fruituak eduki zuen. Kopuru handiagoak lortu zituen bere lanagatik, uztaren kalitatea ere hobea zelako. Honek bere bizitzan inflexio puntu bat ekarri zuen. Orain 20,000 errupia pakistandarra inguru irabaz zitzaken uzta garai bakoitzean.



BIZITZAKO ISTORIOAK

Laneko egoera berri honek aurreko urteen parean aire freskoa ekarri zuen, baina zoriontasuna kolokan jarri zen laster. 2009an, semeari minbizia topatu zioten. Egindako esfortzuak eginda ere, gaixotasuna azkarra izan zen eta semea handik gutxira hil zen. Eta etorkizun hobea baterako itxaropenak ere harekin joan ziren. Nahi ez zuen laneko baja hau zela eta, etxeko lanak azkar bihurtu ziren egin ezineko zerbait, diru iturri bakarra zen uzta alde batera utzi ezin zutelako.

Zoritxarrez, bost urte beranduago, Zakiaren beste semea ere larri gaixotu zen. Honakoan, garun tumore bat izan zen, hogeita bost urte zituela hil zen. Bi galerengatik goibel, senarraren osasuna ere oso azkar hondatzen hasi zen, eta bigarren semearen dolua ere itxi gabe zegoela hil zen hau. Zorigaitz bat beste baten atzetik, eta honek Zakiaren bizitza txikitu zuen. Guztiaren gainera, ala ere, ordura arte izandako emakume loriatsua zela adierazteko indarrak atera zituen. Ausardia hartu eta bere buruari esker bizitza egiteko negozio txikin bati ekin zion, senarrarengandik jasotako lursaila lantzen zuen bitartean.

Miseriaren erruz, bere bizitza nora ezean zebilen. Urte hauetan zehar, FIFBMk inguruko nekazariak haztegiak sortzeko laguntzen zituela entzun zuen. Arlo horretan esperientzia izaki, eskaera osatu eta bere haztegia sortu zuen, hogeita hamahiru albortxikondotik gora zituena. Orduz gozotik, hau izan zen bere iturri nagusia.

Azkenik, bere ondorioa zen lanean ardurak eta optimismoak posible ez dena lortzen ere laguntzen duela. Bere egoera ekonomikoa hobetzea lortu zuen, eta beste bi alabak hezi ahal izan zituen. Oraindik ere, jaungoikoak laguntza eskaintzen dutenak laguntzen baditu ere, munduaren parte honetan bakoitzak bere patua marrazteko lan egin behar duela pentsatzen du.



“ Bizitzak gainditzeko oso kolpe zailak eman dizkit, baina gaur esan nezake bizitzak oraindik merezi duela jende onex inguratzen bazara.

Hirurogei urte ditut eta, nekatuta nagoenean, seme-alabetan pentsatu eta indarra berreskuratzen dut. Haiekin eta senarrarekin bizitza asea bizirik izan nuen. Bat batean, zoritxarrak atea jo eta nire bizitza irauli zuen. Nire garairik gogorrena izan zen. Bizitza osoa eman dit maite nituenek utzitako butsunea gainditzeak, baina nire beste seme eta alabagatik bizirik eta lan egin nuen. Zoriontasun eta kontraktasunetan bizirik izanda, gaur esan nezake bizitzak merezi duela jende aproposaz inguratuta zaudenean. Orain, herriko beste alargunek baino bizirik egonkorragoa daukat, ekonomikoari dagokionez. Orain, une batean itxaropena galdu zuten beste emakumeentzat lorpen adibide bat naiz”.

